

Erref. kodea: LAF-108-909

Izenburua: Gutuneria: MILLOX, J. B.



BORDEAUX
PORTE DU MAROC


BORDEAUX 6
19H
00
49
GIRONDE

BORDEAUX
PORTE DU MAROC



BORDEAUX 6
19H
00
49
GIRONDE

Monsieur l'Abbé Lafitte
Professeur Petit séminaire
Ustaritz
Basse-Pyrénées



B. Milloz 78 cours Marc Monard

Bordeaux

ROUBAIX
LE 10 OCT 1890
BORDEAUX
LE 10 OCT 1890



Le 19

Monsieur le Directeur de *Meris*
Vous serait possible si vous plaît de faire
insérer cet article dans votre journal *Meris* de
cette semaine -
me vous remerciant vivement agréer mes salutations
MILLOX JB. SAINT PEE S/NIVELLE BP.

SAINT PEE SUR NIVELLE
BASSES-PYRENEES

SEMPERE

Gure herrian bozak pasatu dire maltso maltsoa harramantzarik gabe, bakarrik Thomazok egin duen biltzarre batean izan da harramantza pichka bat bainan ez Sempertarrekin emanik. Ondotik segitzen sartzkaion dizipuluek emanik; gu sempertar gutiz gehienak zuhurki jokatu gare, ez gaitu Frantzia guzian pasatu den marce kolpeak hainitz hunkitu. Guk nahiago izan dugu ~~zuzenaz~~ adin gordinean den langile ona atchiki ezinez eta ja adinean hain harat gana den aprendiz bat ~~hantu~~ hantu hortakotz Petit Jaunak izan ditu 608 Boz, bertze bortzek ez zituztelarik 304 baizik.

Bigarren igandean ginen lanean, Petit Jauna erretiratua eta egin-bidea bethe nahi girichtinoki; eta nola egin. Poirier jauna izan baginu bederen haren baitan konfientzia izaten ahal ginuen, hura ere erretiratu; parte handi bat bozkatu da Thomazo Jaunarentzat zeren errana zuen bataiatua zela, beraz girichtinoa, bainan malhuruski ez baita hori aski bethi gizon izaiteko. GARAT jaunak izan ditu 117 boza, salto handichkoa 31 etarik, ez dut pentsatzen denak zozializta bilhakatu direla, eman diote boza biltzarre guzietan gizon agertu delakotz nehor mechprechatu gabe; ehun eta hamar gelditu dire bozik eman gabe gutiz gehienak laborariak. zertako desarranjatuko ziren, Thomazo Jaunak ez gaitu hainitz aipatu, gu, laborariak, Frantzia berria laboraririk gabe egin gogo othe duen, ni beldur, ~~guzier~~ ere lanik aski izanen duen. Petit Jaunak izan ditu 60 boza alabainan izigarri dorphe zen zortzi egunik bane beharrik gabe itzulia.

Jaun Thomaz Orain han da, ez ahal gaitu, hainitzek beldurra duten bezala, buru kolpe batez, Corse-etik hegaldatu den bezala kosta hegi huntarik berritz hegaldatuko, nik dakit norat, Harispe Jaunari kargua utzirik. Lehe-nago, gu, framazon hitza aipatzean berean ikaritzen ginen; hargin beltzak deitzen gintuen. Miarritzen, eskola libroen laguntzearen ez alde, Semperen aldiz erroitik, Pariserat gaten bada agian alde agertuko da.

Eta pasatzean errateko, Herrian gure Jaun Merari buruz agertu artikulu hura, ez dakit guziek bururaino irakurtu ere duten, ikusiz arrozoin baino aiherkande gehiago zuela, gure Jaun Mera den bezen bihotz on, guzieren ongiaren egiterat ekarria, nihorentzat aiherkunderik gabea; uste zuen min eginen ziola; bainan beldur naiz bere buruari egin dion gehiago, aintzinean duen minaren gainerat. Pentsa gure Jaun Merari ez zaio balio errepustaren egitea ere; Egun hautan komprenitua naiz gaitz horren gainean zerbeit bat komprenitzen duten Jaun batzuk, kontsulta zutela, nola jokatu behar zuten gaitz horren garraitzeko; ez dakit kausitu dutenez. Aments gocho batzuek hein batean eritasu na ezitzen dute, hoieri ere behar bada eginen diote hiru hilabeterentzat

bederen. Artikulu haren egileak iduri du irakurtzen ez dakila, zere n
eta ez baitu deus ere, egin dionari dohakonik. ez badu eskolarik aski;
denbora aski egon ahal da eskoletan, baina baitezpada behar luke
bertze eskola batean egon ahar bar, jendeen alderat errespetu pichka
baten ikasteko.

Jaun batek egun hautan kondatzen zautan ichtario pullit bat
bainan erdaraz zautan kondatu. Herri batean omen zen, ez dakit zoi n
herritan, gizon gazte bat nihondik mera sartu nahia; ezkontzeko bidean
zen, bainan andere beharrak kondizione bat emana zion; frantchimenta
behar zen izan. : Avant que tu sois, toi père et moi mère; il faut que
tu sois toi Maire.

Gora bethi Sempere.
Zerbitzari leihala.

Handwritten notes in the left margin:
1848
1849
1850
1851
1852
1853
1854
1855
1856
1857
1858
1859
1860
1861
1862
1863
1864
1865
1866
1867
1868
1869
1870
1871
1872
1873
1874
1875
1876
1877
1878
1879
1880
1881
1882
1883
1884
1885
1886
1887
1888
1889
1890
1891
1892
1893
1894
1895
1896
1897
1898
1899
1900

Faint, mirrored text from the reverse side of the page, appearing as bleed-through. The text is largely illegible due to fading and the bleed-through effect.

